

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2020an egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko deialdiaren oinarriak

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 11n egindako bilkuran, elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2020an egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorrek 9.3 artikuluan, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikuluan, eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira haiek, guztiek jakin ditzaten.

Lehenengo oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarriotan arautzen diren dirulaguntzen xedea da 2020. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerrientzat onuragarritzat jotzen direnak eta Udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntzak izango dira, eta honako hauek aplikatuko zaizkie: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta beraren arautegia (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa), Toki Korporazioen Zerbitzuen Arautegia, Plan Estrategikoa eta, azkenik, dirulaguntzen udal ordenantza.

Bigarren oinarria. Pertsona onuradunak

Honako hauek izan daitezke laguntza hauen onuradun:

1. Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta taldeak, behar bezala erregistratuta daudenak Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera, ondoko baldintzak betez gero:

a) Egoitza udalerrian dutela bertan soilik ari diren elkarteak eta kirol klubak, programak edo jarduerak egiten dituztenak.

b) Egoitza udalerrian ez eduki arren, dela udalerrian bazkide kopuru nabarmena izateagatik dela jardueran udalerriko partaide asko egoteagatik, bertan edo inguruan egingo diren gizarte, kultura edo kirol programei ekiten dieten elkarteak eta kirol klubak.

2. Udalerrian erroldaturiko pertsona fisikoak, baldin eta zuzenez dagokien dirulaguntza emateko jarduerak egiten ari badira.

3. Nortasun juridikorik ez eduki arren, udalerrian hainbat kide erroldatuta dituzten pertsona fisikoen elkarteak, dirulaguntza jaso ditzaketen proiektuak edo jarduerak, hain zuzen ere udalaren jarduna osatzen dutenak eta udalerriko herritarrentzat onuragarritzat jotzen direnak, egin ahal badituzte.

Hirugarren oinarria. Diruz lagundu daitezkeen programak

Dirulaguntza jaso dezakete eskaera aurkezten den urtean udalerrian egiten diren irabazteko xederik gabeko jarduera programatuek, bai eta udalerrian bertan egin ez arren bigarren oinarrian adierazitako onuradunek gauzatzen dituzten programetako jarduerak ere, arlo hauetakoak izanez gero:

1. Gizarte eta kultura sustapena.

– Kultura eta gizarte jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi lantegiak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura edo gizarte jarduera edo ekintza ere).

2. Kirol sustapena.

– Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako gainerako jarduera guztiak).

Ez dira diruz lagunduko:

– Berriazko jarduerak, herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen dutenak.

– Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

– Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jarduerako hornikuntzarako eta behar bezala justifikatuta badago.

– Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrek erostea, salbu eta diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoa den materiala, aldeztatik haren beharrezko balorazio teknikoaren eginda.

– Funtzionamenduak sortutako gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erre- gaia...).

Laugarren oinarria. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Eskaera orri bat (eredu ofizialaren arabera) programa edo jarduera bakoitzeko, elkar- tearen lehendakariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak sinatuta. Eskaera orriaren eredia Udalaren bulegoetan eskura daiteke.

b) Eskatutako laguntzen zerrendaren ziurtagiria, elkar-tearen idazkariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak egina. Beste organismo edo erakunde batzuei dirulaguntzaren bat eskatzen bazaie programa bererako, haien zerrenda aurkeztu behar da (I. eranskina).

c) Kirol klubek eta elkarteek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute (eredua I. eranskinean).

d) Jardueren edo programaren proiektua (eredua II. eranskinean); datu hauek zehaztu behar dira:

– Lortu nahi diren helburuak.

– Nolakoak izango diren egingo diren jarduerak.

– Jarduerak non eta noiz egingo diren.

– Nortzuek jasoko duten jardueren onura eta zenbat izango diren.

– Dirulaguntzaren bidez egingo diren jardueren sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.

e) Egoitza udalerrian ez duten kirol klubek eta elkarteek erregistroan izena emanda daudela frogatu behar dute eta udalerrian bizi diren bazkideen frogagiriak aurkeztu behar dituzte. Hala- ber, parte hartzaileen datuak eman behar dituzte Donemiliagakoak direla frogatzeko.

Eskaera batek ez baditu betetzen adierazitako baldintzak, Donemiliagako Udalak interesdu- nari eskatuko dio akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko hamabost egun pasatu baino lehen. Epe horretan gorabeherak zuzentzen ez badira, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da eta eskaera artxibatuko da.

Bosgarren oinarria. Agiriak aurkeztea

Eskaerak Donemiliagako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira.

Eskaerak, laugarren oinarrian adierazitako agiriekin batera, 2020ko irailaren 7rako aurkeztu behar dira.

Seigarren oinarria. Dirulaguntzak emateko irizpideak eta dirulaguntzen zenbatekoa

1. Dirulaguntzak emateko eta haien zenbatekoak zehazteko irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

a) Lehentasuna edukiko dute udalerrian bertan egiten diren jarduerak.

b) Dirulaguntzarik gabe nekez egin daitezkeen jarduerak bultzatzea.

c) Jardueraren interes orokorra.

d) Dirulaguntza aplikatuko den lurralde eremua: jardueran parte hartuko duten edo haren onuradun izango diren herrien kopurua.

e) Donemiliagan onuradun izango diren pertsonen eta jardueran ariko diren kolektiboen kopurua.

f) Programaren kostu osoaren eta eskatzaileak bere gain hartzen duen zatiaren arteko erlazioa.

g) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egitea.

2. Irizpide hauek erabiliko dira irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta taldeentzako laguntzen zenbatekoa ezartzeko:

– Egoitza udalerrian dutela udalerrian bertan soilik ari diren kirol klubek eta elkarteek egiten dituzten jardueretarako, defizitaren ehuneko 100 emango da, gehienez, eta aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 850 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

Laguntzaren ehunekoa zehazteko lehentasuna emango zaio jardueran zuzenean parte hartzen duten erroldatutako pertsonen kopuruari.

– Egoitza udalerrian dutela udalerritik kanpo ari diren kirol klubek eta elkarteek egiten dituzten jardueretarako, defizitaren ehuneko 80 emango da, gehienez, eta aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 400 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

Laguntzaren ehunekoa zehazteko lehentasuna emango zaio jardueran zuzenean parte hartzen duten erroldatutako pertsonen kopuruari.

– Egoitza udalerrian ez duten kirol elkarteek eta klubek egiten dituzten jardueretarako, defizitaren ehuneko 80 emango da, gehienez, eta aurkezten diren eskaeren arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa 400 euro izango da gehienez, aurkezten diren programen edo jardueren bolumena gorabehera, eta betiere udalerrriaren aurrekontu orokorrean dagoen aurrekontu partidaren esparruan.

Dirulaguntzaren ehunekoa zehaztean, lehentasuna emango zaio jardueran zuzenean parte hartzen duten erroldatutakoen kopuruari.

3. Pertsona fisikoei edo nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen elkartei ondoko irizpide bereziak aplikatuko zaizkie:

– Aurreko idatz zatietako irizpide berak aplikatuko dira.

– Hainbat pertsona fisikok banakako laguntza eskatzen badute jarduera programa bererako, laguntza bat bakarrik emango da.

Zazpigarren oinarria. Aurrekontu zuzkidura

Dirulaguntzak honako aurrekontu partida hauen kargura emango dira: 231.481.000 partidatik (erretiratuen elkarte) 2.500,00 euro; 334.482.000 partidatik (kulturako dirulaguntzak) 2.000,00 euro; 341.482.002 partidatik (kirol jardueretarako dirulaguntzak) 600,00 euro.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta indarreko urtean baino ez dira aplikatuko. Ezin izango da arrazoitzat eman aurrekoan jaso izana eta ezin izango da dirulaguntza handitzeko edo berrikusteko eskatu.

Zortzigarren oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskuratzen dituen beste batzuekin. Dena dela, Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa, beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin da izan onuradunek egin nahi duten jardueraren edo programen kostua baino gehiago.

Onartutako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastuaren finantzabidea zein den eta laguntza edo beste diru sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Horrelakoetan haxe izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa: diru sarreraren eta gastuen arteko azken likidazioaren ondoriozko defizita.

Bederatzigarren oinarria. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Gizarte eta kultura zerbitzua ematen duen teknikaria izango da organo izapidegilea; ofizios egingo ditu ebazpen proposamenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak.

Donemiliagako Udaleko alkateak dauka dirulaguntzak emateko eskumena, Informazio Batzorde Orokorrek proposamena egin ondoren.

Eskaerei buruzko ebazpena frogagiriak aurkezten direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen emango da. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsizat joko da. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

Hamargarren oinarria. Onuradunen betebeharrak

a) Dirulaguntza jasotzen duten jarduerak dirulaguntza ematen den urteko abenduaren 31rako eginda egon behar dira.

b) Onuradunek, gastuak frogatzeaz gainera, jardueraren memoria xehatua eta gastuen eta sarreraren balantze ekonomikoa aurkeztu beharko dituzte.

c) Ezin izango da aldatu emandako dirulaguntzaren xedea, udalak baimena eman ezean.

d) Jardueraren publizitatean haxe agertu behar da idatzita: "Donemiliagako Udalaren laguntzarekin / Con la colaboración del Ayuntamiento de San Millán".

e) Agiri guztietan, publizitatean, irudietan edo materialean kontu izan beharko da komunikazio ez sexista erabiltzeko, eta, horrela, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihesteko eta berdintasun balioak sustatzeko.

f) Onuradunek publizitatea eta komunikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egingo dituzte.

g) Donemiliagako Udalak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta beste erakunde eskudun batzuek eskatzen dituzten argibide guztiak eman behar dituzte.

h) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak.

Dirulaguntza eskatzeak oinarri hauek ezagutu eta onartzen direla esan nahi du.

Dirulaguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiliko da.

Hamaikagarren oinarria. Hizkuntza irizpideak

Donemiliagako Udalaren "Euskararen erabilera plana" hizkuntzaren normalizazioan aurre-rapausoak emateko plan estrategikoa da. Funtsean, garatu beharreko helburuak eta estrategiak zehazteko oinarritzko tresna da, udalerriko lehentasunak eta beharrak kontuan hartzen dituena. Euskararen erabilera normalizatu nahi da beraren aldeko ekintzak egokituz eta proposatuz.

Planean jasotako helburuak kontuan hartuta, hizkuntza irizpide hauek bete behar dira:

1. Jardueren zabalkundea (kartelak, liburuxkak, gutunak...) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
2. Gaztelaniaz gain, euskara erabiltzea ekitaldietan: aurkezpenetan, megafonian, ekintzetan, jardueretan...
3. Egitarauaren barruan euskarazko jardueren antolaketa bultzatzea.
4. 16 urtetik beherakoentzako jardueretako begiraleak euskaldunak izango dira eta beti euskaraz ariko dira. Bi kasutan egingo da salbuespena: begirale euskaldunak topatzen ez denean edo urte asko lanean diharduten begiraleak direnean.
5. Udalak arreta handiarekin egiaztatuko du hizkuntza irizpideak betetzen direla. Bete ezean, behar diren neurriak ezarriko dira.

Hamabigarren oinarria. Lehentasun irizpideak

Hauek dira Arabako Lautadako emakumeen eta gizonen berdintasun planaren helburuak: emakumeen ahalduntzea sustatzea, hala bakarka nola taldeka; pertsonen zaintzarako baliabideak eta beharrak zuzen banatzea; gizonen indarkeriarik gabeko bizitza lortzea. Plan hori oinarritzko baliabidea da, udalerraren ezaugarri bereziak kontuan hartuz gero.

Planean adierazitako helburuak lortzen direla egiaztatzeko, genero ikuspegia presente egongo da aurkezten diren programa eta jarduerak egitearen ondorioz sortzen diren agiri guztietan. Horiek horrela, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, irizpide hauek beteko dira:

- Hartzaile datuak sexuka (emakume/gizon) berezita aurkeztuko dira edo, erakundeak beraien bildu badituzte datuak, genero nortasunaren arabera (emakume, gizon, beste batzuk), bai aurkeztutako proiektuan bai haren justifikazioan.
- Proposamenean argi zehaztuko da emakumeengan duen eragina. Saihestu egin behar da emakumeentzako zernahi eragin kaltegarri eta, hala behar izango balitz, aurreikusi egin beharko dira eragin hori ezerezteko neurriak.
- Proiektuan edo haren harira garatzen diren jarduera guztietan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sustatzea.
- Proiektuak zehaztuta izango ditu zenbait genero emaitza, nahiz eta gutxi izan.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. Artikuluaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 puntuak betetzen direla egiaztatzeko, aholkua da langile guztiak berdintasunean trebatzea Donemiliagako Udalak eta kuadrillak urtean zehar antolatzen dituen ikastaroen eta lantegien bidez. Hona hemen ikastaro eta lantegi horien helburuak:

- a. Estatutuak aldatzea, genero ikuspegia jaso dezaten.
- b. Paritarioak ez diren zuzendaritzak aldatzea.
- c. Elkarteen jardueretan indarkeria matxistari eta zantzu mikromatxisteei aurrea hartzea.
- d. Berdintasunaren arloan langileen eskarmentua egiaztatzea.
- e. Aholkua da, ekintza guztietan genero ikuspegia txerta dadin, udalaren Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jartzea.

Hamahirugarren oinarria. Dirulaguntza ordaintzea, gastuak frogatzea eta itzulketarako prozedura

Diruz lagundutako programa edo jarduera bukatu ondoren, justifikatu egin beharko da, 2020ko urtarrilaren 11rako, beranduenez. Epe horretan agiriak aurkezten ez badira, ordainketa kredituak balio gabetuko dira eta aurreratutako diru kopuruak itzultzeko eskatuko da.

Jarduera justifikatzeko agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera-frogagiri bat, eredu ofizialaren arabera, programa edo jarduera bakoitzeko, elkartearen lehendakariak edo eskaeraren edo jardueraren arduradunak sinatuta. Eredua Udalaren bulegoetan eskuratu ahal izango da, edo Udalaren webgunetik jaitsi: www.donemiliaga.eus.

b) Egindako jarduerak eta horien emaitzak adierazten dituen memoria.

c) Egindako gastuari dagozkion fakturak edo justifikazio kontu erraztua, III. eranskinean jasotakoaren arabera (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 75. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik).

Frogagiriak aurkeztu eta dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa baloratu ondoren ordainduko dira laguntzak edo dirulaguntzak.

Nolanahi ere, dirulaguntza honela ordaindu ahal izango da:

– Urteko programetan, aldezturik ordaindu ahal izango da, gehienez, dirulaguntzaren ehuneko 50.

– Ezohiko programetan eta unean uneko jardueretan, jarduera justifikatu eta memoria aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntza, behin dirulaguntza emateko ebazpena emandakoan.

– Baldin eta dirulaguntza ezinbesteko finantzaketa bada jarduera egin ahal izateko, dirulaguntza aurrez ordaindu ahal izango da, aurreko oinarrian ezarri bezala onuradunak egin beharra daukan justifikazioa baino lehen.

Frogagiriak ez badatoz bat deialdi honetako irizpideekin, irizpideen arabera justifikatutako kopurua besterik ez da ordainduko; gainera, gerta liteke dirulaguntza balio gabetzea ere.

Oinarri hauetan ezartzen diren betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza ezeztatzea ekar dezake.

Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Donemiliagako Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera izango da.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki irizitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

Donemiliagako Udalak datuak benetakoak diren eska eta egiazta dezake, bai eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den ere. Horretarako, elkarte onuradunek hitzemandu dute egingo dituzten programa eta jardueren inguruan eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

Hamalagarren oinarria. Dirulaguntza galtzea

Oinarri hauetan ezartzen diren betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak emandako dirulaguntzaren zati bat edo guztia galtzea ekar dezake.

Hamabosgarren oinarria. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Donemiliagako Udalak ebaziko du.

Aplikatu beharreko oinarriko arauak hauek dira: Dirulaguntzen udal ordenantza; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena.

Hamaseigarren oinarria. Errekurtsoak

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsoa deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; organo horren ebazpen esanbidezko edo presuntziozkoaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena presuntziozkoa bada, sei hilabeteko epean, errekurtsoaren presuntziozko ezeste hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Erdoña, 2020ko apirilaren 21a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO

DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)**I ERANSKINA****Nik,**.....**JAUNAK / ANDREAK,****NAN:****ORDEZKATZEN DUDAN ERAKUNDEA:****ADIERAZTEN DUT:**

- Ordezkatzen dudan erakundeak diru-laguntzen Lege Orokorraren 13 artikuluan arrekusten diren diru-laguntzen onuraduna izateko ez daukala inolako debekurik.

- Dagozkion zerga guztiak ordaindu dituela eta Gizarte Segurantzarekin ez daukala inolako zorrik.

- Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartutako baldintzetan aldaketak emanez gero, erakundeari jakinarazteko konpromezua bere gain hartzen duela

- Donemiliagako Udalari baimena ematen dio zergak ordaindu dituela eta Gizarte Segurantzarekin zorrak ez dituela baieztatzen duen ziurtagiria dagokion tokian eskatzeko.

- MARKATU:

Beste erakunde publiko zein pribatuei dirulaguntzarik eskatu ez izana egiaztatzen dut.

Beste erakundeei eskatutako diru-laguntzakeurokoak izan direla egiaztatzen dut. (Zein erakundeak izan diren izendatu).

Erdoñana, 20.....(e) koaren..... a

SINADURA

DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)

ESKABIDE - ORRIA

II ERANSKINA: JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Eskabidea igortzen zaion saila::
 Kultura Kirola

EGITASMOA

DATAK

KOKAPENA

HARTZAILEAK

Herritar Guztiak Haurrak Gazteak Helduak Hirugarren Adinekoak
(Jarri x bat jardueraren hartzaileak zein diren azaltzeko)

ZEIN HERRITAN

BURUTU DIREN EKINTZAK

(Jarduera-programa bat diruz laguntzeko eskatu nahi bada, jarduera guzti-guztiak aipatu behar dira)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)AYUNTAMIENTO DE SAN
MILLAN
(ALAVA)**AURREKONTUA**


GASTUEN ZERRENDA:

KONTZEPTUA	AURREIKUSITAKO GASTUA
GUZTIRA	

DIRU- SARRERAREN ZERRENDA: Erakunde publikoak zein pribatuak aipatu behar dira (aldundia, Eusko Jaurlaritza, bankuak, saltokiak, bazkide kuotak, eta abar)

KONTZEPTUA	AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERAK
GUZTIRA	

DEFIZITA



DONEMILIAGAKO UDALA
(ARABA)

AYUNTAMIENTO DE SAN MILLAN
(ALAVA)

III ERANSKINA/ANEXO III: Justifikazio kontu erraztua / Cuenta justificativa simplificada

1. EGINDAKO GASTUEN ZERRENDA IZENDUANA / RELACIÓN NOMINATIVA DE LOS GASTOS REALIZADOS

202__ urtean, Donemiliagako udalan, jaiak, gizarie eta kultura jarduerak antolatzeke emandako diru- laguntzari dagokionez, etaeuroko diru-laguntza onartu dela kontuan hartuz,euroko aurrekontuari dagokiona,Jaun/andreakfen ordezkari moduan:

En relación con la subvención concedida dentro de la convocatoria pública de subvenciones para financiar la organización y celebración de festejos y actividades socioculturales desarrolladas en el municipio de San Millán en el ejercicio 202__, por importe deeuros, con un presupuesto total de euros, D./Dña en representación de la Asociación o Entidad.....

ZIURTATZEN DU/CERTIFICA: Jasotako dirulaguntzen xedea bete dela, goian esandako datuak egiazkoak direla, jarduera egiteko erabili dela diru laguntza, eta ezarritako epean egin dela jarduera. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharra aitortu dia erakundearen kontabilitatean. Gastuak beheko taulan zehazten dira.

Que se ha cumplido la finalidad de la subvención percibida, que los datos anteriormente relacionados son ciertos, que los mismos se han destinado al cumplimiento de la actividad realizada y que la misma se ha realizado dentro del plazo de ejecución concedido, acreditando además que el gasto realizado, que se relaciona a continuación, ha sido objeto de reconocimiento de la obligación en la contabilidad de la Entidad.

Faktura zk.-Eta jaulkipen data Nº de factura y fecha de emisión	Hornitzailea Proveedor	Kontzeptua Concepto	Zenbatekoa (1) Importe (1)	BEZ(2) IVA (2)	Garbia(1+2+3) Neto(1+2+3)	PFEZ(3) IRPF (3)	Guztira (1+2) Total (1+2)	Ordainketa eguna (hala badagokio) Fecha de pago (en su caso)

Jatorrizko fakturak edo agiri balioak erantsi direla, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bereko 500 euro gainditzen dutenak (BEza aparte) eta horiek ordaindu izanaren frogagarriak.

Que se adjuntan facturas o documentos equivalentes originales o copia compulsada que, individualmente o de forma conjunta para un mismo concepto de gasto, superen la cantidad de 500 euros (IVA no incluido) y sus correspondientes justificantes de pago.

Honako diru laguntza, laguntza edota diru sarrera hauek lortu direla xede bereerako/ Que para la misma finalidad se han obtenido las siguientes subvenciones, ayudas y/o ingresos:

En a de de 202..
.....an, 202...eko.....fen.....ak

ENTITATEA/ENTIDAD	ZENBATEKOA/IMPORTE

Ez dleb beste inongo diru laguntza, laguntza edo diru sarrerarik jaso./No se ha obtenido ninguna otra subvención, ayuda o ingreso.

(Sinadura eta sigilua/Firma y sello)